

EGUTEGIAREN ZUZENKETAREN ARGIBIDEAK

Atzo, Haurreskolak Partzuergoko gerenteak haurreskoletara bidalitako ohar baten bidez, haurreskolei jakinarazi zien **21-22 ikasturtearen egutegia arautzeko excell egutegian ezarritako irizpideen gaineko zuzenketa.**

Izan ere, **LAB sindikatutik** ikasturte hasieran beste ikasturteetan ez bezala, **egutegirik gabe geundela salatu genuen.** Laster heldu zitzaigun egutegia egiteko irizpidea, lan hitzarmenarekin bat ez zetorrena. Horregatik, premiaz Hezkuntza Sailburua eta Haurreskolak Partzuergoaren lehendakaria den **Jokin Bildarratzi eta gerenteari eskatu genien erabakia bertan behera uzteko.** Ostean, langile eta hiru sindikatuen artean berrestu genuen eskaera.

Denon artean nahasmena sortu duten jarraibideak bideratzea lortu dugu eta **aurreko ikasturteetan bezala, lan hitzarmenean oinarritutako egutegia izaten jarraituko dugu.** Beraz, orain arteko baldintza berdinetan haurreskoletako Jarraipen Batzordeetan ikasturteko egutegia adostu beharko duzue eta **irailaren 30a arte luzatu den epean Partzuergoari bidali:**

- Egutegian 212 egun zehaztu beharko ditugu (hezitzaile bakoitzak 210 lanegun egin beharko du, 206 arreta zuzenekoak direlarik) irailaren 1etik uztailaren 29ra doan tarte horretan (azken lanegunak ez du zergatik uztailaren 29a izan behar).

Lan Hitzarmenaren negoziazioaren hastapenetan eta oraindik Haurreskolak Partzuergoaren diagnostikoaren emaitza ezagutzen ez dugunean, **LAB sindikatuak Hezkuntza sailari eskatu dio Haurreskolak Partzuergoan beharrezkoak diren egiturazko aldaketak langileekin adostea, ausardiaz jokatzeko eta behar den finantziarioz hornitzea.** Zikloa bera, haurreskolak eta lanpostuak erdigunean kokatuz.

Pasa den ikasturtearen amaieran egindako aldizkarian argi adierazten genuen LABen ustez zeintzuk izan behar diren plan estrategikoak kontuan hartu beharreko ildoak.

<https://irakaskuntza.lab.eus/wp-content/uploads/2021/06/%E2%80%A2-buletina-2021.pdf>

Beraz, Haurreskoletako langileak berriro ere zoriondu nahi ditugu, denon artean gure lan baldintzak kolokan jartzen zituen jarraibide nahasgarri horiek baldintzatzeko gai izan garelako.

Animo eta aurrera!

